



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2020/21 Denboraldia

## 7. ZIRKULARRA

### HIRUGARREN MAILA IV. MULTZOKO LEHIAKETAKO ARAUAK ETA OINARRIAK

Zirkular honen bidez argitaratzen da Hirugarren Mailako IV. Multzoko Lehiaketa Nazionaleko 2020/21 denboraldiko antolakuntza eta garapena arautzen duen araudia.

Aipatutako arauak eta dagozkien eranskinak bildu dira.

Bilbo, 2020ko urriaren 27a

ALLICA


KEPA ALLICA BILBAO  
Secretario General



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

**HIRUGARREN MAILA IV. MULTZOKO  
LEHIAKETAKO ARAUAK ETA  
OINARRIAK**

**2020/2021 DENBORALDIA**





EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

## **XEDAPEN OROKORRAK**

### **AURREKOA. - APLIKATU BEHARREKO ARAUBIDEA.**

2020/2021 denboraldian Hirugarren Mailako Estatuko lehiaketa ez ofizialaren antolakuntza eta garapena Espainiako Futbol Federazioak (RFEF aurrerantzean) 7. Zirkularrean argitaratutako oinarrien eta araudien mende egongo dira, federazioaren antolamendu juridikoko gainerako arauetan xedatuari kalterik egin gabe.

Espainiako Futbol Federazioak beretzat gordetzen du bere eskumenerako beharrezko aldaketak sartzeko eskubidea, edo dagokionean, eskudun organoari proposatzekoa eta lehiaketako araudi eta oinarri hauek interpretatzekoa.

### **LEHENA. - LEHIAKETAREN TITULARTASUNA ETA SAILKAPENA.**

Hirugarren Mailako Ligako Txapelketa Nazionala estatu mailako lehiaketa ofiziala da eta izaera ez profesionala du; Espainiako Futbol Federazioari dagokio lehiaketaren titulartasuna.

### **BIGARRENA. - EGUTEGIA.**

Lehiaketa egutegi ofizialaren arabera egingo da, eta egutegi hori zirkular honi lotuko zaio, 1. eranskin gisa.

### **HIRUGARRENA. TALDEEK LEHIAKETAN IZENA EMATEA.**

Taldearen kirol merituen ondorioz estatuko Hirugarren Maila ez profesionaleko lehiaketa ofizialean parte hartzeko eskubidea duten klubek, dagokien talde horren izena eman ahal izango dute lehiaketan xede horretarako finkatutako aldian.

Hirugarren Mailako lehiaketa ofizialean taldearen izena eman nahi duten klubek, RFEFk xede horretarako egokituko duen plataforma web/digitalaren bidez egin beharko dute.

Lehiaketan izena ematea borondatezkoa da eta eginez gero esan nahi du klubak eta kide guztiek borondatez bat egiten dutela RFEFko organoek indarrean dagoen legeriaren arabera baliozkotasunez onartutako Estatutuekin, Araudiekin, lehiaketako arauekin eta gainerako araudi guztiekin eta bereziki pandemiako segurtasun protokoloekin.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

RFEFk talde baten lehiaketako izen-ematea onartzeko, klubak, eta dagokionean taldeak, aurrez bete beharko ditu izena eman nahi duen maila horretan parte hartzeko indarrean diren eta legez eta arauz ezarrita dauden kirol arloko baldintza guztiak.

### **LAUGARRENA. - LIZENTZIAK ESKATZEKO ALDIAK.**

Euskadiko Futbol Federazioak (aurrerantzean EFF-FVF) ezingo du Hirugarren Mailan dauden klubek aldeko lizentziarik egin, horretarako izena emateko alditik kanpo. Aurreikusitako aldi berruan izena emateko, RFEFren aldeko txostena beharko da, Araudi Orokorreko 121. artikuluan eta bat datozenetan xedatua errespetatzeko.

Hirugarren Mailako Ligako Txapelketa Nazionalean futbolari baten izena emateko, denboraldian zehar horretarako egokitutako aldi berruan egin ahal izango da, Araudi Orokorrean adostuarekin bat etorriz.

2020/2021 denboraldian Hirugarren Mailako Ligako Txapelketa Nazionalean futbolari baten izen-ematea formalizatzeko epea 2020ko abuztuaren 4tik 2021eko martxoaren 1era arte izango da.

### **BOSGARRENA. - LIZENTZIA KOPURUA, TALDE BAKOITZEKO.**

Hirugarren Mailako klubek gehienez ere 22 futbolari-lizentzia lor ditzakete beren plantillan; horietatik, ezin izango dira 23 urtetik gorako 16 jokalaririk baino gehiago egon kirol-denboraldi osoan (1998ko urtarrilaren 1a baino lehen jaio direnak, oraingo denboraldian).

### **SEIGARRENA. - JOKOKO ARAUAK.**

Partidak eta lehiaketa, betiere, International Football Association Board-en (IFAB) Joko Arauen arabera jokatuko dira.

### **ZAZPIGARRENA. - BALOI OFIZIALA.**

Hirugarren Mailako Txapelketan eta horren ondorengo faseetan lehiaketako baloi ofiziala erabili beharko da nahitaez partidetan, hau da, ADIDAS markako TSUBASA eta HURAN HYBRID modeloa.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

## **ZORTZIGARRENA. - UNIFORMEAK.**

1. Futbolarien uniformeek horretarako Erregelamendu Orokorrean jasotako xedapenak bete beharko dituzte, eta gutxienez bi eta gehienez hiru izan beharko dute; eta RFEFri eta EFF-FVFri jakinarazi beharko zaie kirol-denboraldi bakoitzeko lehiaketa ofizialeko lehen partida izan baino hamabost egun lehenago gutxienez.
2. Klubak lehenengo uniforme ofizialarekin arituko dira, elkarren aurka aritu behar duten bi taldeen uniformeak berdinak ez badira; berdinak edo antzekoak izanez gero, eta epaileak usteko balu horrek nahasmena ekar dezakeela, kanpoko zelaian ari denak aldatu egin beharko du berea, aldiz, partida zelai neutralean bada, RFEFn edo EFF-FVFn afiliaziorik modernoena duen taldeak aldatu beharko du.
3. Aurreko paragrafoan aurreikusitako ondorioetarako, klubek bidaia hasi aurretik hartu beharko dituzte uniformeak aldatu ahal izateko neurriak, ondorioz, bi ekipamendu eraman beharko dituzte nahitaez.
4. Araudi Orokorreko 111. artikulua araberak, publizitateak eduki komertziala izan behar du nahitaez, eta jokalarien jantzetan ezingo da agertu inolako marka, ikur, anagrama, enblema edota irudi politiko edo erlijiosorik edo RFEFren edota EFF-FVFren interesen aurkakorik; halaber, ekipazioen beste eremu batzuk eta osagarriak (kapitainaren besokoa, esaterako) ezingo dira erabili horrelako ikurrak sartzeko, RFEFk edota EFF-FVFK aurrez berariazko baimenik ematen ez badute.
5. Nahitaez kamisetaren eskuineko mahukan izan beharko da Hirugarren Mailako txapelketaren identifikazio anagrama daukan eransgarria, eta ezin izango da beste elkarte batzuen identifikazio eransgarriak jantzi. Halaber, ezin izango da beste atalik erabili anagramak edo publizitatea eranstea, esaterako kapitainaren besokoa, baldin eta RFEF Espainiako Futbol Federazioaren edo/eta EFF-FVFren berariazko baimenik ez badago.
6. Espainiako Hirugarren Mailako Liga Txapelketan, elastikoaren atzealdean futbolari bakoitzaren dortsal finkoa ezarri beharko da, izen-identifikaziorik gabe, 25 zentimetro luzekoa, 216.3 artikulua aintzat hartuta eta Batzordeak hala erabaki ondoren.

Futbolarien dortsalak 1 eta 22 zenbakien artekoak izango dira, 1a eta 13a atezaintzat erreserbatuta. Baldin eta lehen taldean lizentziadun hirugarren atezain bat izango balitz, 25. dortsala gordeko litzaioke. Eskumeneko edo maila baxuagoko taldeetako kide izateagatik aldika



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

partidak joka ditzaketen jokalariei dagokienez, 24 zenbaitik aurrerako dortsal finkoa jantzi beharko dute, jokatzan duten partida bakoitzean. Salbuespen gisa, eta klubak atezain bakarraren lizentzia baldin badu soil-soilik, zelaiko futbolari bati 23 zenbakia eman ahal izango zaio.

Galtzetan, aurrealdeko eskuinean, jokalaria identifikatzeko dortsala agertu beharko da, 10 zentimetro luzekoa.

Partidako arbitroak beharrezko neurriak hartu ahal izango ditu xedapen horiek behar bezala bete daitezzen.

### **BEDERATZIGARRENA. - LANALDIA ETA ORDUTEGIAK.**

- a) Egutegi ofizialean finkatutako egunetan izango dira partidak, Araudi Orokorrean xedatuari eta EFF-FVFK adostuari kalterik egin gabe.
- b) Partidak igandean izango dira, etxeko taldeak erabakitzen duen bezala. Dena dela, Araudi Orokorreko 214.8 artikularen arabera, EFF-FVFK adostu du klubek partida larunbatera aurreratu dezaketela, 15:30etik 19:30era bitarteko edozein ordutara, talde aurkariaren adostasunik gabe.
- c) Halaber, igandetarako ordutegi-tarte bat ezarri da, eta tarte horretan hasi beharko dira partidak, 10:30etik 13:15era eta 15:30etik 19:30etara, klubak ados jarri ezean.
- d) Partidak lanegunetan egiten direnean, klub antolatzaileek 19:30etik 20:30era bitartean finkatuko dute hasteko ordua. Kluben batek ordutegia aldatu nahi badu, aurkariaren baimena beharko du, eta hark idatziz adieraziko du.
- e) Klubek EFF-FVFK eta aurka egiten duen taldeari jakinarazi beharko diete partidaren ordutegia, gutxienez, partida hasi baino zazpi egun lehenago, horretarako EFF-FVFK intranetean jarritako pasabidearen bidez edo, bestela, posta elektronikoz, helbide honetara idatzita: [info@euskadifutbol.eus](mailto:info@euskadifutbol.eus)

### **HAMARGARRENA. - JOKALEKUA ETA INSTALAZIOAK**

Hirugarren Mailako Ligako Txapelketa Nazionaleko instalazioei dagokienez, klubek EFF-FVFK jakinarazi beharko diote, lehiaketa hasi baino hamabost egun lehenago gutxienez, egoera, neurriak, azalera-mota eta jokaleku alternatibo bat. Instalazio guztiek Erregelamendu Orokorreko 203. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa bete beharko dute.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

## **HAMAIKAGARRENA. - JOKALARIEN ZERREDA.**

1. Partida hasi baino lehen, talde bakoitzeko futbolari titularren eta aldi baterako ordezkoen zerrenda eman beharko zaio arbitroari, baita aulkian jar daitezkeen teknikarien zerrenda ere.
2. Partida bat hasi ahal izateko, talde bakoitzak gutxienez zazpi jokalarirekin agertu beharko du eta horiei eutsi beharko die partida osoan, denak taldea dagoen kategoriako plantillakoak. Partida hasi aurretik edo partida jokatu bitartean, kopuru hori murriztea eragin duen edozein arrazoiengatik, baldin eta talde bat gutxienerako kopurura iristen ez bada, exijitutako zazpira arteko aldea ezin izango da beste maila edo kategoria bateko jokalariekin osatu, arbitroak partida etetea erabakiko du, eta diziplina-organoak dagokion ebazpena emango du.
3. Menpeko taldeetatik edo talde filialetatik datozen jokalaria, Erregelamendu Orokorreko 226. eta 227. artikuluen arabera, futbolari titularren edo ordezkoen zerrendan sar badaitezke, esku hartuko duten taldeko jokalarientzat erregelamenduz ezarritako epean inskribatu beharko dira. Partidaren garapenari dagokionez, horietako lau jokalarik parte hartu ahal izango dute gehienez zelaian.
4. Denboraldian zehar talde nagusian edo babeslean parte hartzeko aukera bertan behera geratuko da, baldin eta jokalariei, goikoan izena emanda egon arren, denboraldi berean baja eman eta beheragokoan formalizatu bazaie izen-ematea, edo, klub horien lehen taldea maila ez profesionalei atxikita egon eta Erregelamendu Orokorreko 49., 61. edo 192. artikuluetan aurreikusitako egoeraren batean badago.
5. Jokalarien zerrendak bat etorri beharko du Araudi Orokorreko 223. artikulutik 230.era artekoek xedatuekin.

## **HAMABIGARRENA. - ORDEZKOAK ETA ORDEZKAPENAK.**

Ordezkoen kopurua ezin izango da, inola ere, bederatzi futbolari baino gehiagokoa izan.

Partida batean gehienez ere ordezko bost jokalarik jokatu ahal izango dute, jokalaria titular bat ordezkatuta, talde bakoitzari alde aurretik arbitroak onetsitako hiru etenalditan, orotara.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

Hori egin ondoren, jokalaria ordezkatuak irten egin beharko du jokalekutik, hark gertuen duen muga-lerroa igarota, eta ezin izango du berriz lehian parte hartu. Partidan zehar, beroketa ariketak 1. zenbakiko arbitro laguntzailea dagoen bandan soilik egin ahal izango dituzte jokalariek, gehienez hiru jokalarik talde bakoitzeko. Kanpora bidalitako futbolari bat ezin izango da inolaz ere ordezkatu.

Bigarren B Mailara igotzeko playoffetan, baldin eta luzapena jokatzen bada, bi taldeak erabili gabeko ordezeko kopuruarekin eta ordezkatzeko aukerekin iritsiko dira luzapen horretara. Gainera, ordezkatzeko bat gehiago egin ahal izango da luzapenean zehar; hura hasi aurretik eta haren atsedenaldiran soilik egin ahal izango da.

Hori guztia International Football Association Boardek (IFAB) emandako 2020ko 19. eta 20. zirkularretan jasotakoari jarraituta.

### **HAMAHIRUGARRENA. - PUBLIZITATEA.**

Partida hasteko adierazitako ordutik aurrera, ezin izango da inolako publizitaterik erakutsi arlo teknikoan, ez eta jokalekuan, banda-marratik edo helmuga-marratik kanporantz metro batera ere, ez ateen markoetan eta sareetan, ezta kórnerren banderatzuetan ere. Ondorio horietarako, jokalekua da hau da: bera osatzen duen laukizuzenaren guztizkoa, ateen albokoak barne.

### **HAMALAU GARRENA. - ARBITRAJEA.**

Arbitroen izendapenari eta arbitroen ordainsariei buruzko alderdiei dagokienez, RFEFren Erregelamendu Orokorrean eta Arbitroen Euskal Batzorde Teknikoak eta organo eskudunak hartutako erabakietan xedatutakoari jarraituko zaio, hala badagokio.

EFF-FVFK 2020/21 denboraldirako onartu duen tarifa **485 €**-ko ordainagiri bakarra da.

Zenbateko horretan kontzeptu guztiak sartzen dira, bai arbitraje-eskubideak, bai arbitraje hirukotearen dietak eta bidaia-gastuak. Ordainagiri hori jokalekuaren titularrak ordaindu beharko du.





EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

Ordainketa banku-transferentziaren bidez egingo da, Arbitroen Euskal Batzordeak prestatzen duen kontuan, jakinarazten diren aukeren artean klubak aukeratzeko duen modalitatean.

### **OHARTARAZPEN ETA ZIGOR ZIKLOAK ZEHAZTEA.**

Espaniako Hirugarren Mailako Liga Txapelketan, denboraldi berean bost ohartarazpen metatuz gero, jokalaria ezingo du hurrengo partida jokatu, eta RFEFko Diziiplina Kodearen 52. artikuluan, kasu bakoitzaren arabera, aurreikusitako diru-osagarria ordaindu beharko du. Arauzko Liga amaitzen denean, hau da, Lehen fase eta Bigarren fase espezifikoak bukatzean, bertan behera geratuko dira baliogabetu gabeko zigoren indarraldiko zikloak.

Bigarren "B" mailara igotzeko playoffean, baldin eta hiru ohartarazpen metatzen badira, jokalaria ezingo du hurrengo partida jokatu, eta RFEFko Diziiplina Kodearen 52. artikuluan, kasu bakoitzaren arabera, aurreikusitako diru-osagarria ordaindu beharko du.

RFEFko Zigor Kodeko 56. artikuluan xedatuaren mende daude partidetakozigoren zehapenak.

### **HAMASEIGARRENA. - EKONOMIA- ETA FINATZA-ARAUBIDEA.**

1. RFEFko titulartasuna dagokion estatu esparruko lehiaketa ofizialetan parte hartzen duten klubek, maila bakoitzeko egoera ekonomiko-finantzarioaren informazio eta balorazio orokorra egiteko, eta lehiaketaren interesak kontrolatzeko eta babesteko mekanismoak hobetu ahal izateko, honako dokumentazio hau bidali beharko dute federazio horretara, adierazitako egunetan:

a) 2020ko irailaren 21era arte:

- 2019/20 denboraldiko ekainaren 30ean itxitako ustiapen- eta balantze-kontuaren itxiera-aurreikuspena aurkeztea.
- 2020/21 denboraldirako aurrekontu-proiektua aurkeztea.
- Plantillaren eta entrenatzaileen lan-kontratuak. Aldaketak eginez gero, aldaketa ekarri.

b) 2020ko abenduaren 31 baino lehen:

- 2019/20 denboraldiko ustiapen-kontuaren behin betiko itxiera, 2020ko ekainaren 30ean.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 2019/20 denboraldiaren behin betiko balantzea, 2020ko ekainaren 30ean itxia.

c) Hilero edo hiru hilean behin, dagokionaren arabera:

- Gizarte-kotizazioen likidazioa egiaztatzen duen dokumentazioa.

- BEZaren eta PFEZaren zerga-aitorpenaren eta gerorapenen inprimakiak aurkeztu.

d) 2021eko martxoaren 30a baino lehen:

- 2020ko abenduaren 31n denboraldiko lehen seihilekoari dagozkion ustiapen-kontuen egoera.

- 2020ko abenduaren 31n itxitako balantzea, denboraldiko lehen seihilekoari dagokiona.

e) Edozein unetan: - Kontratu berriak plantillarekin eta entrenatzaileekin.

2. Klub guztiek laguntza ekonomikorako plataforman sartuko dituzte eskatutako datuak, horretarako sortutako web ingurunean.

3. Klubek dokumentazioa bidaltzeko arduradun bat identifikatuko dute, eta zenbaki honetan aipatzen diren dokumentuak eta komunikazioak kudeatzeko helbide elektronikoa eskusiboa helaraziko diote RFEFri.

4. RFEFk klubek igorritako dokumentazioa zainduko du, gehieneko segurtasun maila aplikatuz.

RFEFk klub bakoitzerako banakako txostenak egin ahal izango ditu, bai eta taldeka edo sailka eta kategoriaka gehitutako txostenak ere. Txosten horietan ez dira klubak identifikatzea ahalbidetzen duten datuak jasoko.

RFEFk berriazko egokitzapen bat egin ahal izango du mendeko taldeentzat, klub osoari buruz eskatutako informazio guztia aurkeztu beharrik izan ez dezaten

## **HAMAZAZPIGARRENA.- ESKUERAKUTSIK ETA OMENALDIAK EGITEA**

Denboraldi honetarako zirkularraren arabera, gorazarre egiteko, omentzeko edo aitortzak egiteko ekintzak RFEFk edota EFF-FVFk baimendu beharko dituzte, eta gehienez ere partida hasi baino 72 ordu lehenago egin beharko da eskaria.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

RFEFren edota EFF-FVFren ekitaldi hauek egiteko baino ez zaio eskatuko baimena:

- a) Minutuko isilunea egiteko edota elastikoan besoko beltza eramateko. Errespetuzko omenaldia eragiten duen heriotza aurreikusitako epetik kanpo gertatzen bada, ez da beharrezkoa izango RFEFren baimena, eta omenaldia egin nahi duen taldeko ordezkariak horren berri eman beharko dio arbitroari, instalaziora iristean, partida egiteko behar diren neurriak har ditzan.
- b) Ohorezko sakeak.
- c) Trofeoak ematen direnean, partida hasi baino zazpi minutu lehenago bukatu beharko dute.
- d) Klubak zaleei, oinarrizko futbol-taldeei eta bestelakoei egin nahi dizkien omenaldiak: ekitaldi horiek partida hasi baino zazpi minutu lehenago bukatu beharko dira.

Espainiar futbol osoaren edo maila jakin baten edota berriazko txapelketa baten izenean ekitaldiak adosteko eskumena RFEFk baino ez du izango.

### XEDAPEN GEHIGARRIAK

#### **LEHENENGOA.- GENEROARI BURUZKO AIPAMENA LEHIAKETAKO ARAU ETA OINARRIETAN.**

Zirkular honetan gizonetzkoen buruz egiten den aipamen oro -arbitroei, jokalariei edo beste parte-hartzaile batzuei- gizonetzkoen eta emakumezkoen dagokie era berean, eta irakurketa erraztea du xede.

#### **BIGARRENA.- 16/17 DENBORALDIAN ADINGABEEI BURUZKO RFEF-REN 42. ZIRKULARRA NAHITAEZ BETE BEHARRA.**

Adingabearen Babes Juridikoaren Legeari buruzko egungo araudia nahitaez bete behar denez, eta eragin diezaiekeen guztiei horren berri emateko, gogorarazten da 16/17 denboraldiko RFEFren 42. zirkularra nahitaez bete behar dela. Zirkularrean, adingabeekin ohiko harremanak dituzten lanbide, ogibide eta jardueretan sartzeko eta horietan aritzeko baldintzak jakinarazten dira.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

## **COVID-19AREN ONDORIOZKO APARTEKO XEDAPENAK**

### **LEHENA. - BABES OROKORRA.**

Zirkular honetan xedatua aldatu egin daiteke denboraldian zehar ezinbesteko arrazoien ondorioz eta RFEFko Batzarraren Batzorde Ordezkaría izango da lehiaketa geratzearen edota lehiaketara itzultzearen erabakia hartzeko eskumena duena, ezinbesteko arrazoiengatik bada eta zenbat iraungo duen erabakitzeko eskumena duena ere honek izango du, lehiaketako epailearen eskumena ez den kasu guztietan.

Zirkular honetan aurreikusitako ondorioetarako ezinbesteko arrazoiak daudela erabakiko da lurralde jakin batean gobernuaren araudi bat edo agindu bat badago eta, dagokionean, eskudun justiziak behar bezalako bermea eman badio araudi edo agindu horri federatutako lehiaketako kirol-jarduerak ez garatzeko, dela edozein mailatako entrenamenduak dela lurralde horretan jokatu beharreko partidak; ondorioak berdinak izango dira muga horiek dituen Alarma Egoera dekretatu bada.

### **BIGARRENA. – LEHIAKETAREN AZKEN EMAITZAK, DENENTZAT AMAITZEN EZ BADA**

Ezinbesteko kasuetan lehiaketa eten edo gelditzen bada, arau hauek aplikatuko dira lehiaketen goera, jaitsiera eta irabazleak zehazteko.

a) Fase erregular bakarreko (joan-etorria) lehiaketetarako.

Ezinbesteko arrazoiengatik lehiaketak bertan behera uzten edo gelditzen badira, eta lehiaketa osoa amaitu ezin bada, hau da, hasieratik aurreikusitako partida guztiak jokatzen ez badira, ekainaren 30a baino lehen amaitu dela joko da, mailakoigoerarik eta jaitsierarik gabe, edo, hala badagokio, tituluaren



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

irabazlerik gabe, baldin eta ezin izan badira jokatu, gutxienez, klub partehartzaile guztien egutegi ofizialean aurreikusitako jardunaldi guztien %50.

Bertan behera uzteko unean edo ekainaren 30ean, gehienez ere, klub partehartzaile guztien % 50eko edo gehiagoko jardunaldi-kopurua jokatu bada, sailkapena baliozkotzat emango da, ekainaren 30a baino lehen partida gehiago ezin jokatu bada, eta arau berak aplikatuko dira mailaz igotzeko eta jaisteko, edo, hala badagokio, titulua emateko, lehiaketaren oinarrietan eta Erregelamendu Orokorrean ezarritako arauen arabera.

b) Zenbait fase dituzten lehiaketetarako (azpimultzoak, taldeak eta sailkapen-faseak).

Zenbait fase dituzten lehiaketetan edo mailetan (azpimultzoak, multzoak eta kanporaketak) ezinbesteko edozein arrazoiren ondorioz lehiaketa amaitzerik ez balego, hau da, hasieratik aurreikusitako partida guztiak jokatzetik ez balego ekainaren 30a baino lehen, RFEFko Batzorde Ordez kariaren mende geratuko da egoeraren ebazpena, baina kontuan izan beharko da taldeak hurrengo denboraldirako mailaz jaisteko edo igotzeko behar diren partiduen % 50 jokatura egon beharko direla gutxienez; berdinketa egonez gero, jokatutako partida guztietan zenbatutako koefizientearen bidez ebatziko da, eta jokatzen jarraitu ezin izan den arte jokatutako fase guztiak batuko dira.

c) Kanporaketa formatua duten lehiaketak.

Ezinbesteko edozein arrazoigatik ekainaren 30a baino lehen kanporaketa bat edo batzuk jokatzetik ez balego, txapeldunik gabe amaituko da lehiaketa, eta bestelako emaitzarik ere ez da egongo, jokatzeko zegoen bakarra finala edo final four ez bazen; hala izanez gero, Batzorde Ordez kariak hurrengo denboraldian jokatzea erabaki dezake.

Dena dela, ezinbesteko arrazoien ondorioz kanporaketako partida batzuk jokatu ahal izan badira eta beste batzuk ez, jokatu duten talde irabazleekin jarraituko da, bai eta jokatu ez arren ez jokatzeko arrazoiak talde horretako kideekin edo partidak jokatzen diren lurraldearekin loturarik ez duten taldeekin ere.”

### **HIRUGARRENA. - ARAU ESPEZIFIKOAK, TALDE GUZTIEK PARTIDA GUZTIAK BERDIN AMAITU EZIN BADITUZTE EDO LEHIATU AHAL BADITUZTE**

1. Talde batek edo batzuek, ezinbestean, ezin badute lehia erregularreko partida bat edo gehiago jokatu denboraldian zehar, eta partida horiek ezin badira jokatu denboraldia amaitu baino lehen, azken sailkapena koefiziente-sistemaren bidez egingo da, hau da, lortutako puntuen eta jokatutako partiden



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

arteko erlazioa, betiere talde jakin horrentzat jokatu gabeko partiden kopurua ez bada lehiaketa bereko talde gehienen % 20 baino handiagoa.

Talde jakin horrentzako partiden arteko aldea % 20 baino handiagoa bada, koefizientearen irizpidea soilik hartuko da kontuan kategoriatik jaisten diren klubak zein diren argitzeko, eta, betiere, talde zehatza, ezinbesteko arrazoen ondorioz, jaisteko posturen atean badago, une horretara arte lortutako puntuengatik.

2. Ezinbesteko arrazoen ondorioz hirugarren mailako talde batek lehiaketan zehar bere zelaian entrenatzeko eta partidak jokatze modurik ez balu bi jardunaldi baino gehiagoz, ordezko bat aurkitu beharko du; ordezko hori bere lurraldean egon beharko da eta bere mailako jokalekuek izan beharreko gutxieneko baldintza guztiak bete beharko ditu.

Berariazko arau hauek gailenduko zaizkie lehiaketako arau hauekin kontraesanean egon daitezkeen gainerako arauari eta beste edozein arau interpretatzeko irizpidea osatuko dute.

### **LAUGARRENA. - TEST POSITIBOAK PLANTILLAN, TEKNIKARIEN KIDEGOAN ETA GAINERAKO KIDEENGAN DITUEN ONDORIOAK.**

Hirugarren mailako talde batean Covid-19aren ondoriozko positibo bat dagoenean, hau da talde horretako kirol-lizentzia duen edonork positibo ematen duenean, entrenamenduak eta lehiaketako partaidetza bertan behera geratuko dira berehala talde horretako gainerako lizentziadunek Covid-19aren testean negatibo eman dutela egiaztatu arte eta inoiz ere ez dira berriro hasiko positiboaren berri izan eta 7 egun igaro baino lehen.

Lizentzia duten gainerako kideei testa egiterik ez balego edozein arrazoiren ondorioz, aurreko atalean aurreikusia ezarriko da. Irizpide bera erabiliko da epe berean 3 positibo baino gehiago daudenean ere.

### **BOSGARRENA. - COVID-19AREN KASU POSITIBOEN BERRI EMATEKO BEHARRA.**

Estatu mailako lehiaketa ez profesionaletan eta kirol lehiaketak hasi zirenetik parte hartzen duten klubek nahitaez eman behar diote berri konfidentzialtasun osoz eta sekretu profesionalaren printzipioaren pean, RFEFko Medikuntza Sailari gehienez ere 24 orduko epean, Estatuko lehiaketa ez profesionaletan lizentzia federatua duen edozein kidek Covid-19an positiboa ematen badu.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

Betebehar berdina izango du eta irizpide eta berme berdinekin eman beharko du positiboaren berri RFEFekin kirol lizentzia izan eta dagokion klubari positiboaren berri ez ematea egoki irizten dion edonork ere.

Ondorio hauetarako, aurreko paragrafoetan aurreikusitako ez jakinarazpena Zigor Kodeko 68. artikuluan aurreikusitako arau hauste oso larritzat joko da, kiroleko ordena onaren aurkako jokabidetzat hartuko da edo, dagokionean, testu horretako 69bis artikuluan aurreikusitako arau hauste oso larritzat, ekintza bereziki larriak direla uste baita errespetu gabezia nabarmena dagoelako eta bere taldeko eta talde aurkariko kideak arriskuan jartzen direlako.

## **HIRUGARREN MAILAKO LEHIAKETAKO OINARRIAK**

### **LEHENA. - PARTE HARTZEN DUTEN TALDEAK.**

1. Hirugarren Mailako Ligako Txapelketa Nazionalen klub partaideak hamazortzi multzotan banatuko dira lurraldetasun-irizpideen arabera; era berean, multzo horietako bakoitzean hamaika edo hamabi klub egongo dira, multzo bakoitzeko talde partaide kopuruaren arabera eta talde eta multzo horiek **2. eranskinean** daude.
2. Hirugarren Mailako euskal multzoan (4. zenbakiduna) 22 klub daude hamaikako bi azpimultzotan banatuta.

### **BIGARRENA. - LEHIAKETA-SISTEMA.**

#### **Espainiako Hirugarren Mailako Liga Txapelketa.**

Lehiaketa hiru fasetan egingo da: lehenengoa arauzko lehiaketari dagokiona izango da, bigarrenak hiru fase espezifiko hartuko ditu (RFEFko Bigarren Mailarako bigarren fasea, RFEFko Bigarren Mailarako Azken faserako bigarren fasea, eta RFEFko Hirugarren Mailako Iraupeneko bigarren fasea) eta hirugarrena RFEFko Bigarren Mailarako Kanporaketetako Azken faseari / RFEFko Bigarren Mailara igotzeko Play Offari dagokiona izango da.

- I. Lehen fasea edo Liga Erregularra (A eta B). (4. multzoa)



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

Guztira 22 jardunaldi izango dira, A eta B izeneko hamaika talderen azpimultzotan. Hauek dira: 4 A multzoa eta 4 B multzoa.

Parte hartzen duten klubek bi bueltan jokatuko dute puntu-sistemaren bidez, eta azken sailkapena erabakiko da, klub lehiatzaile bakoitzak lortutako puntuen arabera: hiru puntu irabazitako partida bakoitzeko, puntu bat berdinketa bakoitzeko eta zero puntu galdutako bakoitzeko.

Bi azpimultzoetako lehen hiru postuetan sailkatzen diren klubak RFEFko Bigarren Mailarako bigarren fasean sartuko dira, laugarrenetik seigarrenera bitarteko postuetan sailkatzen direnak RFEFko Bigarren Mailarako Azken faserako bigarren fasean / RFEFko Bigarren Mailara igotzeko Play Offetan sartuko dira, eta zazpigarrenetik azkenera bitartean sailkatzen direnak RFEFko Hirugarren Mailako Iraupeneko bigarren fasean sartuko dira.

Lortutako puntuak eta golak, hala aldekoak nola kontrakoak, hurrengo fasera eramango dira, eta talde bakoitzak lehen fasean lortutako puntu eta golekin hasiko du berariazko fasea.

## II. Bigarren fase espezifikoa.

### - RFEFko Bigarren Mailarako bigarren fasea (C)

Azpimultzo bakoitzeko lehen hiru postuetan sailkatutako klubek parte hartuko dute. A azpimultzoan parte hartu duten taldeek B azpimultzoan parte hartu dutenen aurka jokatuko dute, itzuli bikoitzean, eta ezingo dute, inola ere, Arauzko faseko azpimultzo berean parte hartu duten taldeen aurka jokatu. Beraz, 6 jardunaldi izango dira guztira

Sailkapena puntukako sistemaren bidez osatuko da, eta azken sailkapena talde bakoitzak lortutako puntuen arabera izango da: irabazitako partida bakoitzeko hiru puntu, berdindutako bakoitzeko puntu bat, eta galdutako bakoitzeko punturik ez. Puntu horiei erantsiko zaizkie Lehen fasean eskuratutako puntuak, aldeko eta kontrako golak eta lortutako emaitzak.

Sailkapeneko lehen bi taldeak RFEFko Bigarren Mailara igoko dira.

Gainerako taldeek RFEFko Bigarren Mailarako Kanporaketetako Azken fasean / RFEFko Bigarren Mailara Igotzeko Play Offean parte hartuko dute.

### - RFEFko (D) Bigarren Mailara igotzeko play offerako fasea.





EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

Azpimultzo bakoitzeko laugarren postutik seigarrenera bitartean sailkatutako taldeek parte hartuko dute. A azpimultzoan parte hartu duten taldeek B azpimultzoan parte hartu dutenen aurka jokatuko dute, itzuli bikoitzean, eta ezingo dute, inola ere, Arauzko faseko azpimultzo berean parte hartu duten taldeen aurka jokatu. Beraz, 6 jardunaldi izango dira guztira

Sailkapena puntukako sistemaren bidez osatuko da, eta azken sailkapena talde bakoitzak lortutako puntuen arabera izango da: irabazitako partida bakoitzeko hiru puntu, berdindutako bakoitzeko puntu bat, eta galdutako bakoitzeko punturik ez. Puntu horiei erantsiko zaizkie Lehen fasean eskuratutako puntuak, aldeko eta kontrako golak eta lortutako emaitzak.

Sailkatutako lehen bi taldeak RFEFko Bigarren Mailarako Kanporaketetako Azken fasea / RFEFko Bigarren Mailara Igotzeko Play Offa jokatzeko sailkatuko dira.

Gainerako taldeek RFEFko Hirugarren Mailan parte hartuko dute hurrengo 2021/2022 denboraldian.

- RFEFko Hirugarren Mailako Iraupen fasea (E).

Azpimultzo bakoitzeko zazpigarren postutik azkenera bitartean sailkatutako klubek parte hartuko dute. A azpimultzoan parte hartu duten taldeek B azpimultzoan parte hartu dutenen aurka jokatuko dute, itzuli bikoitzean, eta ezingo dute, inola ere, Arauzko faseko azpimultzo berean parte hartu duten taldeen aurka jokatu. Beraz, euskal multzoan 10 jardunaldi izango dira guztira.

Sailkapena puntukako sistemaren bidez osatuko da, eta azken sailkapena talde bakoitzak lortutako puntuen arabera izango da: irabazitako partida bakoitzeko hiru puntu, berdindutako bakoitzeko puntu bat, eta galdutako bakoitzeko punturik ez. Puntu horiei erantsiko zaizkie Lehen fasean eskuratutako puntuak, aldeko eta kontrako golak eta lortutako emaitzak.

Sailkapeneko lehen lau taldeek RFEFko Hirugarren Mailan jarraituko dute.

Gainerako klubak (6 klub) Lurraldeko Kategoriara jaitsiko dira.

III. RFEFko Bigarren Mailara Igotzeko Azken Fasea / RFEFko Bigarren Mailara Igotzeko Play Offa (F)



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

Kanporatze sistemaren bidez garatuko da, partida bakarrera, Erregelamendu Orokorraren 202. artikularen arabera. Azken fase bat jokatu da hemezortzi multzoetako bakoitzeko, eta hemezortzi finalerdiak jokatu dira irabazleak izateko.

C multzoetako 3., 4., 5. eta 6. postuetan sailkatutakoak eta D multzoetako 1. eta 2. postuetan sailkatutakoak parte hartuko dute. Hiru kanporaketa izango dira, eta norgehiagokak honako irizpide hauen arabera zehaztuko dira:

- Final laurdenak: Euskal Multzoa

C multzoko 5. eta 6. postuetan sailkatutako taldeak eta D multzoko 1. eta 2. postuetan sailkatutakoak jokatu dituzte norgehiagokak, lehiaketako bi partidatan.

C multzoko 5. postuan sailkatutako taldeak D multzoko 2. postuan sailkatutakoak aurka jokatu du, eta C multzoko 6. postuan sailkatutako taldeak D multzoko 1. postuan sailkatutako taldearen aurka.

C multzoko bosgarren eta seigarren postuetan sailkatutako taldeen kirol-instalazioetan jokatu dira partidak.

Kanporaketa bakoitzeko garaileak C multzoetako 3. eta 4. postuetan sailkatutakoekin batera sailkatuko dira goerako finalerdiak jokatzeko.

- Finalerdiak: Euskal Multzoa

Lehen aipatutako taldeak jokatu dituzte, lehiaketako bi partidatan. C multzoan hirugarren postua lortu duen taldeak final laurdenak gainditu dituzten taldeen artean posturik edo multzorik 'txarrena' duen taldearen aurka jokatu du, eta C multzoko laugarren postuan sailkatu den taldeak, berriz, final laurdenak gainditu dituzten taldeen artean posturik edo multzorik 'onena' duen taldearen aurka.

C multzoetako hirugarren eta laugarren postuetan sailkatutako taldeen kirol-instalazioetan jokatu dira partidak.

Irabazleek goerako finala jokatu dute

- Finala: Euskal Multzoa

Finalurrekoetako bi irabazleek jokatu dute, posturik eta multzorik onena lortu duen klubaren kirol-instalazioetan.

Jokatu beharreko finalaren garailea RFEFko Bigarren Mailara igoko da.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

Lehiaketa-sistema hori da indarrean dagoena, COVID-19aren ondoriozko kasu berezietan onetsitako araudi bereziari kalterik egin gabe.

## **HIRUGARRENA. - ONDORIOAK SAILKAPENEAN.**

### 1. Txapeldunak.

Hirugarren Mailako hemezortzi multzoetako bakoitzeko txapeldunak izango dira lehenengo postuan sailkatzen direnak RFEFko Bigarren Mailako Bigarren Fasean. Hori dela eta, egoera hori egiaztatzen duen kopa eskuratuko dute.

### 2. Igoera.

Goiko mailara igoko dira gora igotzeko faseak gainditzen dituzten taldeak, lehen zehaztu bezala.

### 3. Jaitsiera.

Berariazko fasean gelditzea lortzen ez duten klubak kategoriatik jaitsiko dira.

### 4. Espainiako Txapelketa Errege Kopa

Txapelketako Lehiaketa Oinarri espezifikoetan adierazita dauden klubek eskuratuko dute parte hartzeko eskubidea.

### 5. Espainiako Futboleko Errege Federazioaren Kopa

Txapelketako Lehiaketa Oinarri espezifikoetan adierazita dauden klubek eskuratuko dute parte hartzeko eskubidea.

### 6. Bazterketak edo ez-agertzeak.

Bi aldiz ez agertzeagatik lehiaketatik kanpo gelditzen den kluba, edo lehiaketatik erretirutzen dena, ez da parte-hartzailezat hartuko, sailkapeneko azken tokia hartuko du, zero punturekin, eta aurreikusitako jaitsiera-postuen artean konputatuko da.

### 7. Filialtasun- edo mendekotasun-loturen ondorioa.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

Filialak eta menpeko taldeak ezin izango dira klub babeslearen kategoria edo maila berean egon. Klub babeslea edo nagusia beheragoko kategoria batera jaitsiko balitz, eta bertan filial edo menpeko talde batek parte hartuko balu, hori ere beheko kategoriara jaitsiko litzateke.

Klub filialek edo menpekoek ezin izango dute bigarren fasean parte hartu, baldin eta babesleak edo nagusiak plaza bat hartzen badu igo daitekeen kategorian. Egutegian alde handiak izateagatik, talde babeslearen edo filialaren azken sailkapeneko behin betiko postu jakitea ezinezkoa denean, bigarren fasea jokatu ahal izango dute, baina, talde nagusiak edo babesleak kategoria berean segituz gero, igoera ez litzateke gauzatuko.

Filialtasunaren loturak ez du balioko, inola ere, arauzko xedapenak edo lehiaketa-oinarri hauek saihesteko.

#### **LAUGARRENA. - POSTU HUTSAK BETETZEA.**

Beste edozein arrazoiengatik postu hutsak sortuz gero, Erregelamendu Orokorrek horri buruz xedatzen duena beteko da.

#### **BOSGARRENA. - EMAITZAK ZEHAZTEA, AZKEN SAILKAPENEAN BERDINKETA IZANEZ GERO.**

Bi klubek puntu edo koefiziente berdinekin amaitzen badute Ligako Txapelketa, Erregelamendu Orokorreko 201. artikulua araber, honela argituko da berdinketa, azaldutako ordenan, non eta covidaren ondorioz ez diren ezarri behar berariazko arauak:

1. Elkarren aurkako partidetan sartutako eta jasotako golen arteko alderik handiena.
2. Txapelketaren konputu orokorrean sartutako eta jasotako golen arteko alderik handiena.
3. Bere alde golik gehien sartutakoa.
4. Joko garbiaren irizpideetan sailkapenik hoberena lortutakoa.
5. RFEFk izendatutako jokaleku neutralean partida Erregelamendu Orokorreko 202. artikuluan jasotako irizpideei jarraituz.

Bi klub baino gehiagok Ligako Txapelketa puntu edo koefiziente berdinekin amaitzen badute, Erregelamendu Orokorreko 201. artikulua araber, berdinketa honela argituko da, azaldutako ordenan eta modu baztertzailean:



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

1. Puntuazio hobea haien arteko partidetan, gainerako taldeek parte hartuko ez balute bezala.
2. Aldeko eta aurkako golen alde handiagoa, haien artean jokaturako partidetan.
3. Golen alde handiagoa, lehiaketako zenbaketa orokorrean egindakoen eta jasotakoen artean.
4. Aldeko gol-kopururik handiena lortu duena.
5. Joko garbiaren irizpideetan sailkapenik hoberena lortutakoa.

RFEFko Bigarren Mailara Igotzeko Azken Fasea / RFEFko Bigarren Mailara Igotzeko Play Offa jokatzeko, 90 minutu bukatuta berdinketa baldin badago, honela erabakiko da norgehiagoka, adierazitako hurrenkeran eta kanporatze izaeraz:

1. Bi zatiko denbora gehigarria; zati bakoitza hamabost minutukoa.
2. Baldin eta partida amaitzean berdinketak jarraitzen badu, sailkapen onena lortu duen taldea izango da garaile.
3. Baldin eta biek sailkapen bera lortu badute, talde bakoitzak bost penalti jaurtiko ditu, ate komun baten aurrean, batak eta besteak txandaka jaurtiz, eta bost jaurtiketetan gol gehien lortzen duena izango da txapeldun. Baldin eta berdinketak jarraitzen badu, bakoitzak penalti bat jaurtitzeko jarraituko du, harik eta, biek kopuru bera jaurti ostean, batek besteak baino gol bat gehiago sartzen duen arte.

Jarraitzerik ez duen atezain baten ordezkorearen kasuan izan ezik, partidaren amaieran jokalekuan dauden jokalariek soilik izango dute baimena penalti-txandan parte hartzeko, edo une batez jokalekutik kanpo daudenek, lesioagatik, ekipamendu-aldaketengatik eta abarregatik.

Baldin eta, partida amaituta, penaltien txanda baino lehen edo txandan zehar, talde batek aurkariak baino jokalaria gehiago baditu, kopurua murriztu egin behar du aurkako taldearekin parekatzeko, eta epaileari kanporatutako jokalarien izena eta kopurua jakinaraziko zaizkio. Horietako inork ezingo du txandan parte hartu (jarraian deskribatutako kasuan izan ezik).



Baldin eta txandaren aurretik edo txandan zehar atezaina jarraitzeko moduan ez badago, jokalaria kopurua berdintzeko baztertutako jokalaria batekin ordezkatu ahal izango da, edo, baldin eta bere taldeak ez badu baimendutako gehieneko ordezkatzeko kopurua erabili, zerrenda ofizialean halakotzat izendatutako ordezkari batekin; ordezkaturako atezainak ezingo du jada txandan parte hartu eta ezingo du jaurtiketarik egin.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

Baldin eta atezainak ordurako jaurtiketa bat egin badu, ordezekoak ezingo du beste bat jaurti hurrengo jaurtiketa txandara arte.


Hori guztia IFABeko 10. Joko Arauan xedatuta dagoenari kalterik eragin gabe.





EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

# 1. ERANSKINA



## HIRUGARREN MAILAKO EGUTEGIKO DATAK, 2020/21 DENBORALDIA

	<u>Urria</u> <u>20</u>		<u>Azaroa</u> <u>20</u>		<u>Abendua</u> <u>20</u>		<u>Urtarrila</u> <u>21</u>		<u>Otsaila</u> <u>21</u>
	3. maila		3. maila		3. maila		3. maila		3. maila
18	AB-J1	1	AB-J3	6	AB-J8	3	AB-J11	7	AB-J16
25	AB-J2	8	AB-J4	13	AB-J9	10	AB-J12	14	AB-J17



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

	15	AB-J5	20	AB-J10	17	AB-J13	21	AB-J18
	22	AB-J6	27		24	AB-J14	28	AB-J19
	29	AB-J7			31	AB-J15		

	<b>Martxoa</b> <b>21</b>		<b>Apirila</b> <b>21</b>		<b>Maiatza</b> <b>21</b>		<b>Ekaina</b> <b>21</b>
	3. maila		3. maila		3. maila		3. maila
7	AB-J20	4		2	CDE-J4	6	E-J9/F3
14	AB-J21	11	CDE-J1	9	CDE-J5	13	E-J10
21	AB-J22	18	CDE-J2	16	CDE-J6	20	
28		25	CDE-J3	23	E-J7/F1	27	
				30	E-J8/F2		

A eta B: A eta B azpimultzoak. Lehen fasea

C: RFEFko Bigarren Mailara igotzeko bigarren fasea (6 jardunaldi)

D: RFEFko Bigarren Mailara igotzeko play offerako fasea (6 jardunaldi)

E: Hirugarren mailan irauteko fasea (10 jardunaldi)



F: RFEFko Bigarren Mailara igotzeko play off-a (3 jardunaldi)





EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

## 2. ERANSKINA



2020/2021 DENBORALDIA

**HIRUGARREN MAILA IV. MULTZOKO LIGAKO TXAPELKETA NAZIONALA**

**PARTE HARTZEN DUTEN KLUBAK**

Hurrengo 22 klubak, bi azpimultzotan banatuak, honela osatuko dira:



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

IV. Multzoa.- Sestao River Club, CD Vitoria, CD Basconia, JD Somorrostro, SD Gernika Club, CD San Ignacio, Pasaia KE, Santutxu FC, SD Balmaseda FC, Sodupe UC, CD Santurtzi, Real Sociedad de Fútbol "C", SD Beasain, SCD Durango, Uduliz FT, Tolosa CF, SD Deusto, CD Lagun Onak, CD Ariznabarra, Urgatzi KK, CD Aurrera de Ondarroa eta CD Anaitasuna. (22)

IV. Multzoa.-

**A azpimultzoa.-** Sestao River Club, JD Somorrostro, SD Gernika Club, Santutxu FC, SD Balmaseda FC, Real Sociedad de Fútbol "C", SD Beasain, Tolosa CF, SD Deusto, Urgatzi KK eta CD Aurrera de Ondarroa. (11)

**B azpimultzoa.-** CD Vitoria, CD Basconia, CD San Ignacio, Pasaia KE, Sodupe UC, CD Santurtzi, SCD Durango, Uduliz FT, CD Lagun Onak, CD Ariznabarra eta CD Anaitasuna. (11)

\*\*\*\*\*

